

Gipuzkoako erraustegia

GEHIAGO PAGATUKO DUTE... GEHIEN BIRZIKLATZEN DUTENЕК

Gipuzkoako agintariek Zubietako erraustegia eraiki eta ustiatzeko konpainia pribatuei eskaini dieten kontratuak lurralde hau kondenatzen du, erraustetaren kalteak gutxienez 2051 arte nozitzeaz gain, azken zortzi urteotan lortutako aurrerabide osoa desegitera. Gehien murriztu, konpostatu eta birziklatzen duten udalerriak zigortzen ditu, kutsatzailenak saritzeko.



Pello Zubiria Kamino
@pellozubiria

Abenduaren 27an GHK Gipuzkoako Hondakinen Kudeaketa kontsultazioak argi berdea emanik, Gipuzkoako Foru Aldundiak iragarri zuen datozen 35 urteetan lurraldeko hondakinak kudeatuko dituela Meridiam Investments, Urbaser, Altuna y Uria, Murias, Moyua eta LKS kooperatibak osatutako enpresa taldeak.

GHKk hautatu duen proposamenak zehazten ditu Urbaser eta bere taldeak zein baldintzatan hartuko duten enkargua. Erraustegia eraiki eta martxan jartzeko 30 hilabeteko epea izango dute eta ondorengo 32 urte eta 5 hilabeteetan kudeatuko dituzte Gipuzkoako hondakinak. Lerroetan saiatuko gara argitzen kontratu honen kostu ekonomikoak zein izango diren udalerri bakoitzarentzako, aurretik argituz proiektu osoa izango denaren lehen faseaz ari garela beti.

Kontratuak iraungo duen epean Urbaser eta besteek bi aletan banatutako faktura pasatuko diote GHKri, honek mankomunitateen bidez gero udalei kobratzeko. Alde batetik, aurrez iragarri bezala, zerbitzua jasotzeko eskubideagatik (PPD gaztelaniazko sigletan, *Pago Por Disponibilidad*) 21.672.069 euro pagatuko du urtean Gipuzkoak, hau da, 32 urte eta 5 hilabeteetan 702.536.237 euro.

Fakturaren bigarren parteak bilduko du enpresek kudeatzeko jasoko dituzten zabor tonengatik pagakizuna: tona bakoitzeko 3,80 euro TMB Tratamendu Mekaniko Biologikoa egiteko eta 11,80 errausteko.

Denetara urtean zenbatera igoko da fakturaren bigarren zati hau? Erreferentziatzen harturik 2015ean Gipuzkoak sortu zituela 149.000 tona errefus, horiek aurrerantzean konstante mantentzekotan –Jose Ignacio Asensio Ingurumen diputatuak deklaratu berri du Gipuzkoak aski zabor sortuko duela erraustegia elikatzeke kanpotik ekarri beharrik gabe...– urtean 2.309.580 euro pagatuko dira, epe osoan 74.868.885 euro. Bigarren faktura hau gehiturik aipatu PPD edo zerbitzua jasotzeko eskubideari, denetara 2051 arte errefusak tratatzeagatik pagatuko ditu 777,5 milioi euro, gehi prezioen uteroko eguneraketak aginduko duena.

Erretzeko eskubidea, obligazio

Agiri ofizialetan oso garbi ikusten denez, Gipuzkoako gizarteak hondakinak erraustetaren fakturaren zati nagusia Zubietako Ingurumen Konplexua dituen erraustegiaren bazkide izateagatik pagatuko du, hau da: %90 bazkide kuantatzen eta %10 baizik ez sortutako zaborraren arabera. Hemen datza oraindik

Gipuzkoan aski zabaltzen ez den eztabaidaren beste osagai nagusi bat. Osasunean, enpleguan, ingurumenean edo Ekonomia Zirkularrerako trantsizioan erraustetak sortzen dituen kezkez gain, bere finantzatzea arras modu injustuan burutuko dela, ondoen ari direnak zigortuz eta gaizki ari direnak sarituz.

Gipuzkoako biztanle guztiek erraustegiaren kostuak kasik berdintsu pagatzea erabaki denez kontratuz, errefus gutxiena sortzen duten herriek tona bakoitza urrearen truke pagatuko dute. Zenbat? Erraustetaren kostuak udalka nola bana daitezkeen kalkulatu dugu, GHK Urbaser eta besteekin hitzartutako kontratuaren irizpide berak aplikaturik GHKren mankomunitate eta udalekiko harremanetara. ARGIAren Interneteko gunean egongo da prestatu dugun simulazioaren koadroa osorik ikusgai. Kronika honen ondoren doan grafikoa osatzeko, berriz, simulazio osoaren atal batzuk nabarmendu ditugu: udal bakoitzak zenbat errefusa sortzen duen biztanleko/urteko, urtean denetara zenbateko faktura iritsiko zaion eta sortutako errefus tona bakoitza erraustea zenbat eurotan atera dakikeen.

Irakurlea koadroa ikusirik fite ohar-tuko da nortzuk diren zigortuak eta nor sarituak. Zigorrik handienak gaikako bilteta eta birziklatzean txapeldunentzako dira: Ormaiztegi tona bat

GIPUZKOAKO UDALERRIEN URTE BETEKO PAGAKIZUNAK ERREFUSA ERRAUSTEAGATIK

 Sortutako errefusa biztanleko/urteko (kg)

 Urteko faktura: bazkidetza + tratamendua (€)

 Errefus tona bakoitzaren kostua (€)

	 kg	 €	 €
Abaltzisketa	157	10.781	207
Aduna	34	14.523	908
Aia	386	74.145	94
Aizarnazabal	86	24.515	371
Albiztur	92	10.377	346
Alegia	50	54.207	623
Alkiza	139	12.115	233
Altzaga	113	5.312	266
Altzo	54	12.465	567
Amezketza	24	29.693	1.291
Andoain	231	497.050	146
Anoeta	66	59.378	460
Antzuola	51	68.204	609
Arama	32	6.685	955
Aretxabaleta	57	218.185	548
Arrasate	106	704.765	301
Asteasu	129	49.226	250
Astigarraga	58	172.584	555
Ataun	45	52.702	693
Azkoitia	139	372.336	232
Azpeitia	256	500.331	133
Baliarrain	133	4.205	247
Beasain	183	458.400	179
Beizama	80	5.264	405
Belauntza	88	8.238	358
Berastegi	16	32.266	1.898
Bergara	69	465.302	458
Berrobi	53	17.681	589
Bidania-Goiatz	77	16.519	403
Deba	306	191.255	114

	 kg	 €	 €
Donostia	281	6.456.253	123
Eibar	209	920.724	161
Elduain	18	7.305	1.826
Elgeta	84	35.437	377
Elgoibar	252	393.714	135
Errenteria-Oretea	215	1.320.392	157
Errezil	77	18.718	407
Eskoriatza	76	128.763	417
Ezkio-Itsaso	117	19.578	272
Gabiria	133	16.075	247
Gaintza	156	3.933	207
Gaztelu	202	5.712	168
Getaria	414	100.595	87
Hernani	63	613.253	497
Hernialde	197	11.683	169
Hondarribia	301	591.639	116
Ibarra	56	132.686	558
Idiazabal	163	75.746	201
Ikaztegieta	39	14.357	756
Irun	301	2.143.530	116
Irura	58	52.151	538
Itsasondo	39	20.588	792
Larraul	110	8.331	287
Lasarte-Oria	234	613.959	145
Lazkao	69	171.492	455
Leaburu-Txarama	139	12.115	233
Legazpi	49	267.377	640
Legorreta	82	46.343	389
Leintz-Gatzaga	120	7.847	271
Lezo	45	186.263	687

	 kg	 €	 €
Lizartza	27	19.660	1.156
Mendaro	341	71.311	103
Mutiloa	163	8.610	200
Mutriku	272	182.940	127
Oiartzun	85	315.359	372
Olaberria	136	30.982	244
Oñati	73	354.680	433
Ordizia	75	308.644	416
Orendain	22	5.911	1.478
Orexa	70	3.868	430
Orio	262	196.247	129
Ormaiztegi	26	40.061	1.214
Pasaia	200	532.412	167
Segura	69	46.441	455
Soraluze	241	135.810	143
Tolosa	94	601.805	336
Urnieta	215	208.618	157
Urretxu	172	227.373	191
Usurbil	60	192.686	521
Villabona	59	183.858	528
Zaldibia	54	49.449	582
Zarautz	259	786.476	132
Zegama	54	47.538	587
Zerain	141	8.532	237
Zestoa	82	115.565	378
Zizurkil	98	95.407	325
Zumaia	248	332.917	137
Zumarraga	205	333.223	164
GUZTIRA		23.981.649	

Oharrak: Erakundeek hondakinei buruzko datuak sarritan irizpide ezberdinez antolatzen dituztenez, oraindik ere ez da posible alderaketak %100 fidagarritasunez egitea. Kalkulu honetarako oinarri hartu ditugun errefus kopuruak dira GHKk eta San Markok –mankomunitate honetako udalei buruzkoak– eskaintako berrienak, 2015ari dagozkionak.

errefus erraustea 1.214 euro aterako zaio, Orendaini 1.478... Aldiz, Gipuzkoan biztanleko errefus gehiena sortzen duen Getariari 87 euro, pertsona-urteko 300 kilotik gora dabilzanetan Debari 114 euro, Hondarribiari 116 euro, Iruni ere 116...

Atez Atekoarekin errefusa gehien murriztea lortu dutenek larrutik pagatuko

dute erraustegiari entregatutako tona bakoitza: Antzuolak 609, Oñatik 433, Usurbilek 521, Zaldibiak 582, Hernanik 497... Aldiz, Usurbil hasiz geroztik zortzi urte luzeotan bilketa oso gutxi hobetu dutenak ateratzen dira saritu: Donostiak 123 euro tonako, Eibarrek 161, Errenteriak 157, Andoainek 146, Lasarte-Oriak 145...

Kontua da hondakinen tarifak antolatzeke GHKren logika hau Europar Batasunak ekonomia zirkularraren inguruan agindu eta iradokitzen dituen irizpide guztien kontra doala. Kudeaketa onaren logikaren kontra ere bai: hondakinen murrizketak eskatzen du gaikako bilketan onean gehiago gastatzea, gero tratamenduan aurrezteko.

2015eko ziabogatik, atzeraka

Baina hau ez da berria Gipuzkoan. 2015ean EAJk eta PSEk Foru Aldundia hartu zutenean, aurreko legealdian Bilduk ezarritako tarifen eskema azpiko gain jarri zuten. Hasteko, errefusa %11 garestitu zieten udalei, baina askoz gehiago bereiz bildutako organikoak, %44-88ko igoera. Gainera, organikoari prezioa finkatzeko irizpide berriak ezarri zituzten.

Zeren arabera pagatzen du gaur organikoak udal bakoitzak? 2016ko martxoan onartutako tarifetan, organikoari errefusaren prezio bera ezarri zioten (aurreko legealdian erdia zen), ondoren hobari bat eginez segun eta bere mankomunitateak zenbat organiko entregatzen duen: %15etik %35era doaz hobariak. Tarifak ez du zerikusirik ez GHKren konpost planten gastuekin, ezta merkaturako organikoak tratatzeagatik enpresa pribatuek kobratzen dutenarekin ere.

Zikulu-saltsa hau ulertzeko, balio bezate San Markon Atez Atekoan ari diren udalek. Errefusa 2017an kobratuko diete 173,12 euro tonako eta organikoak

138,49 (2015 arte 70,88 kobratzen zitzaizen!) zergatik eta San Marko mankomunitateak osotasunean biltzen duen organikoaren arabeko tarifa aplikatu zaiolako. San Markon Atez Atekoan ari diren udalek askoz organiko gehiago biltzen dute, baina Donostia, Lasarte-Oria, Errenteria eta besteek osatutako batz bestekoan erortzen dira, horrela galduz beren bilketa onari dagozkion hobari hobeak.

Bada okerragorik, ordea. Iazko udan Gipuzkoako zenbait udalek mankomunitateetatik irten eta ongi bereizitako hondakinak beren kontura kudeatzeko hipotesia landu zutenean, merkaturako aurkitu zituzten hornitzaileak GHKrenak baino askoz prezio hobeetan hartuko lizkietenak, bai organikoak (75 euro bezain merke) eta bai azken errefusa (110 eurotan). Pentsa zer nolako ruina den horrelako udalerrit batentzako urtero galtzea –erraustegiagatik tokatuko zaion dirutzaz gain– hondakinak merkaturako baino askoz garestiago entregatu beharagatik... teorian borondatezko bazkidea den mankomunitateak ez diolako baimentzen beste inori saltzerik.

2051 arte erraustegiaren gatibu

200.000 tonako erraustegia eraiki nahi da Gipuzkoan, non gaikako bilketa txukuna egiten duten herrien ereduak zabalduz gero 50.000 tona errefus baizik sortuko ez liratekeen. Duela zortzi urte Usurbil Atez Atekoan hasi zenetik erakutsi da hori hila-bete gutxitan lortzeko modua badagoela. Aldiz, EAJk eta PSEk kontratista pribatuei bermatu diete Gipuzkoako udal guztiak 35 urtera arte haien eta erraustegiaren gatibu geratzea, errausteko eskubidearen tasa pagatzera derrigortuz.

Erraustegiaren kontratuak markaturako tarifik animatzen dituzte udalak zabor nahasiak gutxitu ez baina orain adina edo gehiago sortzera, gaikako bilketan eta murrizketan egin beharreko esfortzuak ez baitira saritzen, zigortu baino. Eta hala eta guztiz ere udalek erretzeko aski zabor sortzen ez badute, ia berdin pagatuko dutenez erraustegiaren kostuen hamarretik bederatzi, Urbaser eta beste kontratistek Zubieta labeak eskainiko dizkiete Gipuzkoaz kanpoko zabor sortzaileei. Zaborren import-export negozioaz bada esperientzia Europako leku askotan. ■



GIPUZKOAKO ESKOLA TXIKIAK

eskola, herri eta auzo txikiak biziak!

ABALTZISKETA	ALTZO	EZKIO - ITSASO	OIKIA
ADUNA	ANGIOZAR	GABIRIA	OLABERRIA
AGINAGA	ARROA	IGELDO	ZERAIN
AIZARNA	BERROBI	IKAZTEGIETA	ZIZURKIL
AIZARNAZABAL	BIDANIA-GOITATZ	ITSASONDO	ZUBIETA
ALBIZTUR	EREÑOTZU	LARRAUL	
ALKIZA	ERREZIL	LIZARTZA	

WWW.ESKOLATXIKIAK.ORG